

ALIANZA DEMOKRATIKOKO INDARRAK KINSHASARA SARTU ZIREN ATZO, ERRESISTENTZIARIK GABE

Kabilak Kongoko Errepublikako estatuburu izendatu du bere burua

Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzak (KZAIDA) Zaireko trantsizioko agintea bere gain hartu zuen atzo, «Laurent-Desire Kabila hautagaiak gidaturik». Kabilaren indarrak Kinshasa hiriburuan sartu ziren, eta Armadak ez zuen eragozpenik jarri haiek hirian sar ez zitezen.

Agentziak / Lubumbashi-Kinshasa


LAURENT-DESIRE KABILA KZAIDAKo buruzagiak bere burua «Kongoko Errepublika Demokratikoko» estatuburu izendatu zuen atzo, Lubumbashi hirian duen kuartel nagusian eman zuten hitzaldian. Zairek 1960. urtean Belgikatik independentzia lortzean zuen izena berreskuratu du Kabilak. Estatuburu berriak Zaireko Armadako soldaduei agindu zien armak entregatzeko eta errenditzeko. Buruzagi errebolitariak eskertu egin zituen Nelson Mandela Hego Afrikako lehendakariak, Nazio Batuek eta nazioarteko beste herriek Zaireko krisia konpontzeko egin duten ahalegina.

Kabilak Lubumbashitik irakurri zuen landu duen Askatasunaren Deklarazioa, eta irakurketa hori egin zuen aldi berean sartu ziren KZAIDAKo indarrak Kinshasa hiriburu erdiguneko kaleetara. 32 urtez boterean egon eta gero, Mobutu Sese Sekok 24 ordu eskas lehenago alde egin zuen Kinshasatik iparraldeko Gbadoliterantz. «Mobutu han duen etxe handian gera daiteke,

hala nahi badu», adierazi zuen buruzagi errebolitariak. Oraingoz ez da ezer ofizialki baieztatu, baina badirudi Gbadolitetik Erdi Afrikako Errepublikara joango dela Mobutu, Frantziako Versaillesen tankerako jauregia erai-kierazi baitzuen han.

KZAIDAKo indarrek ez zuten eragozpenik topatu Kinshasara sartu zirenean. 10.000 bat soldadu «abesten» zihoazen hiriburuaren erdigunerantz, Kabilak adierazi zuenez. Argi utzi zuen Kinshasa erabat mendearen izango zuela «datozen orduetan».

Tropei kuartera itzultzeko eskatu zien Bolongok • Mobutu Sese Sekori leialak zaizkien indarren porrota onartu egin zuen Likulia Bolongok, Mobutuk ihes egin baino lehen Legebiltzarra izendatu zuen lehen ministroak. Bolongok Zaireko Armadako tropei esan zien kuartera itzultzeko eta indarrak ez erabiltzeko. «Egoera oso larria da», aitortu zuen Bolongok. Ondoren, bi aldeen arteko enfrentamenduak eteteko eskatu zuen eta aldeetako buruzagiei dei egin zien negoziaketak has ditzaten.



Armadako soldadu bat, Kabilaren jarraitzaileei aurre egiten Kinshasan.

CHRISTOPHE SIMON / EPA

Lekukoek azaldu zuten, Kinshasan non-nahi entzuten ziren atzo tiro hotsak. KZAIDAKo indarrak Kinshasako Combe auzora sartu ziren goizean, eta erdigunera bidean ziren. Auzo horretan tankeek eta auto blindatuak ireki zieten bidea Aliantzako indarrei. Aldi berean, indar errebolitarien beste bi zutabe Kinshasa erdigunerantz zihoazen, kanpoaldeko bi auzoetatik. Hiriburuko biztanleak kalera atera ziren oihuka eta banderak eskuetan, gerrillariak ongi etorria

emateko. Kinshasako erdigunera bidean KZAIDAKo indarrek abandonatutako armak aurkitu zituztela esan zuten lekukoek.

Kabilak bere burua estatuburu izendatu aurretik, Aliantza Demokratikoko indarrak Kinshasa erdigunetik 24 kilometroa dagoen Njili aireportua hartu zuten.

Armadako buruzagi gorena hil dute • Ostiral gauean nahasmena handia zen Kinshasan. Mahele Liyoko Bokungu Zaireko Indar Armatuaren Estatu Gorene-

ko buruzagia hil zuten Mobuturi leialak zaizkien Lehendakartzako Dibisio Bereziko soldaduek. Antza denez, Mahelek armak entregatzeko eskatu zien soldaduei, eta horiek hil egin zuten, «traidore» deitu ondoren. Kabilaren inguruko iturriek azaldu zuten estatuburu berriari «atsekabea» eragin ziola hilketak.

Mahelek berak eta beste jeneral batzuek Mobuturi ohartarazi zioten hiriburutik alde egiteko, lehendakaria babesteko gai ez zirelako izango, iturri batzuek zehaztu zuten.

Mobuturen senideak eta Armadako ofizialak Kinshasako ibaiko portutik irten ziren, Poliziaren eta aduanetako inolako kontrolrik gabe. Horietako askok etxeko tresnak eta altzariak zeramatzaten. Gainera, 7.500 erre-fuxiatu ruandar inguruk Zaire ibaia zehazkartu dute azken egunetan, Kongon babesteko.

Hego Afrikako ordezkartza bat Zairera iritsiko da gaur Kabilarekin hartu-emanetan jartzeko. Thabo Mbeki lehendakariordea izango da ziurrenik ordezkartza burua. Kofi Annan, Nazio Batuetako idazkari nagusia, elkarriketaren alde mintzatu zen atzo Zairen elkarren aurka ari diren aldean artean. Alemaniako Gobernuak hauteskunde askeak egiteko eskatu zuen, behin Mobutuk Zaire utzi ondoren trantsizio demokratikoa ziurtatzeko. Erresuma Batuak, beriz, bortizkeria amaitzea nahi du, eta egonkortasuna eta hauteskunde demokratikoak berriro finkatzea.

Kabilak trantsizio eta salbazio nazionaleko gobernua iragarri du

Lauren-Desire Kabilak hitzaldia eman zuen atzo Lubumbashin duen kuartel nagusitik, eta Askatasunaren Deklarazioa irakurri zuen. Hona deklarazioaren oinarriak:

✱ **Trantsizio eta salbazio nazionaleko gobernua** eratuko da 72 orduren buruan. Hau da, bihar eratuko da.

✱ **Konstituzioa** bertan behera geratu da.

✱ **Biltzar nazional konstituziogilea** antolatuko da behin-behineko Konstituzioa egiteko. Trantsizio epean indarrean egongo da konstituzio hori.

✱ **Indar armatu** etako eta indar berezietako (zerbitzu sekretuak, Polizia, Jandarmeria) kideek armak utzi beharko dituzte.

✱ **Nazioarteko** konpromezuak errespetatu egingo dituzte agintari berriek, aurreko gobernuak hitzartu zituelako «Nazioaren interesak aintzat hartuta».

✱ **KZAIDAKo kontrolpetik** at dauden Kinshasako Gobernuako lehengo funtzionarioek beren postuetan jarraituko dute, baina agintari berriekin hartu-emanetan jarrita.

✱ **Hiriburuko herritar** askok lasai egon daitezela eta bortizkeria ekintzarik ez dezatela egin eskatu du.

✱ **Aliantzak ez ditu onartuko** mendekuzko ekintzak edo kontu garbiketak. Horrelakoak egiten dituztenak gogor zigortuko dituzte.

✱ **Polizia Nazionaleko** komandante berriak izendatu dira Mobutu Sese Sekoren erregimeneko Jandarmeria eta Polizia Militarreko buruzagiak ordezkatzeko. ✕

Iparraldeko kantu-Jaialdia

Erramun Martikorena
Jean Mixel Bedaxagar
Kattalin Habans

Maiatzak 23, ostirala - 10:30etan Leidorren

GALTZAUNDI
EUSKARA TALDEA

Sarrera:

800 pta. aurretik
1.000 pta. bertan
500 pta. bazkideak (egoitzan)